

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Etxe Maitia, Autonomia Pertsonala Garatzeko Komunitate eta Egoitza
Laguntzarako Udal Zentroa (Basauri)**

Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren oinarri espezifikoak, 20/2021 Legearen 6. eta 8. Xedapen Gehigarrietatik eratorritakoa eta Zuzendaritzako Laguntzaileen lanbide-kategoriako LT azpitaldeari dagokiona.

Presidente andreak, 2022ko azaroaren 29an, Ebazpena onartu du, eta honako hau xedatzen du ebazpen-zatian:

Lehenengoa: Zuzendaritzako Laguntzaileen lanpostu bat txanda librean hautatzeko deialdia onartzea. LT azpitaldean, 13. ordainsari mailan, 2.2. kodean.

Bigarrena: Zuzendaritzako Laguntzaileen lanpostua txanda irekiaren bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea. Lanpostu hori Zuzendaritzako Laguntzaileen lanbide-kategorian, LT azpitaldean, 13 ordainsari-mailan eta 2.2 kodeari dagokio.

Hirugarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, bai eta deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean ere.

Laugarrena: Deialdia onartzen duen ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Basaurin, 2022ko azaroaren 29an.—Kontseilu Errektoreko lehendakaria, María Larinaga Artetxe



**IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, 20/2021 LEGEAREN
6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOIA ETA ZUZENDARITZAKO
LAGUNTZAILEEN LANBIDE-KATEGORIAKO LT AZPITALDEARI DAGOKIONA**

1. Deitutako plazak

LT azpitaldeko Zuzendaritzako Laguntzaileen lanbide-kategoriarako lanpostu bat (1) betetzeko deialdia egiten da, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

Plaza kopurua	Lotutako lanpostu kopurua	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoak, etab.)
1	ZUZENDARITZAKO LAGUNTZAILEA (2.2 kodea)	2.HE derrigortasun data gabe LT azpitaldea. 13. Ordainsari maila. Urteko Ordainsari gordina 30.494,31 euro

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. LT azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 5 euro.

2.3. Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, Eskola- ziurtagiria edo baliokidea titulazioa eskatzen da.

3. Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak

3.1. Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 2. hizkuntza-eskakizuna (2.HE) bete beharko da. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4. Hautaketa-prozesua

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan ezarritako eskabideen kopurua baino ez da baloratuko, puntuazioaren arabera ordenatuta.

Lehiaketa ez da baztertzailerik izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien %25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 10.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia: euskara-proba: borondatezkoa eta ez baztertzailerik, 2. hizkuntza-eskakizuna (2HE) ez duten lotutako lanpostuetarako lehiatzen direnentzat. Nolanahi ere, maila horri dagokion euskararen ezagutza zehaztea eta egiaztatzea izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Etxe Maitia Udal Egoitzari erregistro horretan egiaztatu dezan.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin beharko da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek



Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

2. hizkuntza-eskakizuna (2HE) egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoa eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, LT azpitaldeko Zuzendaritzako Laguntzaileen lanbide-kategorian emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.



I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu**a.1. Esperientzia orokorra**

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, edo Zuzendaritzako Laguntzaileen kategorian, LT azpitaldean, lan egindako egun bakoitzeko 0,0274 puntu.

a.2. Esperientzia espezifikoa

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, berezita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen Administrazioan Zuzendaritzako Laguntzaileen kategorian, LT azpitaldean egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0,00914 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Titulazioak eta probak gainditzea, karrerako funtzio finko edo lan-kontratu finkoko izaera lortzeko prozeduretan. Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei**b.1. Informatikako ezagutzak**

Informatika-ezagutzak baloratuko dira, 20 puntu gehienez, eta 5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren bertsio ezberdinak egiaztatzen badira, horietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarrizko maila egiaztatutzat joko dira.

b.2.- Euskararen ezagutza

Euskararen ezagutza baldintza ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da, derrigor-tasun-data igarota ez izateagatik, baremo honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 4 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 8 puntu.